

Euskara idatziaren joskera

EUSKAL IDAZLE ZAHARREN GAITZESTEA

XX. MENDEAN

Egia esango badut, beldur pixka batekin heltzen diot gai huni. Badaikit gai eztabaidatua dela. Eta ukitzeaz beraz batzuk minberatu egiten direla.

Behintzat Hego Euskalerriko euskaltzaleen artean.

Ipar Euskalerrian ez dut uste. Hemen goizago hasi ziren euskaraz idazten. Gurean baino berrehun urte lehenago. Eta literaturan ez da egon halako etendurarik. Jarraitasun edo segida gozo bat egon da hasieratik orain arte.

Gurean, berriz, ez da izan hala. Berandu hasi. Eta eginez eta umotuz zetorren tradizioari eutsi eta lagundu beharrea, haustura edo etena gertatu da. Bai. Etendura bortitzak, neurritz kanpokoak eta kaltegarriak egon dira gure artean.

Euskal idazle zaharrak denak txarrak bezala joak eta epaituak izan dira. Denak kutsatuak baleude bezala. Denak zokoratu, lurperatu eta ehortzi behar balira bezala.

Eta batez ere beren sintaksis edo joskeragatik izan dira gaitz eritziak, madarikatuak. Erderatiko hitz gehiegi dakartelako ere bai, noski, baina beraziki joskeragatik. Latinaren kutsuko joskera ezagun dela haietan: horra egotzi zaien hobena. Euskerak, berriz, baduela bere baitako joskera bat, berari dagokiona. Eta hori ikasi, eta idazten dugunean, hori bakarrik erabili behar dugula.

Beraz, gure idazle zaharrek egin duten lan guztia pikutara bota izan da. Ez du balio. Arbuiagarri da. Kutsadura ekarri digute idazle zahar hoiek, pozoina.

Orduan deus egin ez balitz bezala, berriro zerotik, hutsetik hasi ginen etxea egiten. Dena behar zen berri. Dena huts garbia, jatorra, kutsugabea.

Euskaldun jatorrak mintzo direnean beren esaldiak nola muntatzen dituzten aztertu beharra zen. Hoietan beretan ere dena ez da jatorra, noski. Beraz, hauen hizkera ere galbahetu behar zen. Zarramarra eta zikina alde

batera utz. Zein den euskararen sintaksis jatorra ikas. Sintaksis horren le-geak finka, eta horren arabera idatzi.

* * *

Patricio Orcaiztegui jauna gaztetan Arantzazun ikasitakoa zela uste dut. Gero Tolosako Arzizpreste izan zen. Oso euskaltzalea. Jaun hunek 1906. urtean, eta Tolosan, egile-izenik gabe, liburuska bat atera zuen: *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestra (sic) idioma euskaro.*

Esaldiak euskaldunki muntatzeko erregelak ematen ditu batez ere.

Zeñismo hitza berak asmatu zuela uste dut. Euskaraz errelatiboko esaldiak *zein* horren bidez muntatzea eskarniatzen eta madarikatzen du. «Las oraciones llamadas de relativo son inadmisibles en baskuenze con *zeñ*, *zeñetan*, *zentsubek*, *nortsu*, *nortsubek*, *nuntsu*, *zer*, *zerk*, *zertsu*, *zertsuk*, *zertsubek*, y otras partículas ejusdem furfuris. Este pronombre relativo (por de pronto le dejaremos con el nombre que le dan), imitación servil del relativo de los idiomas neolatinos, es el mayor borrón que nuestros abuelos pudieron aceptar en el euskera» (p. 15).

Eta beste toki batean: «Nunca se recurra a las partículas *eze*, *ezik*, *ze* para intercalarlas entre verbo determinante y determinado, diciendo o escribiendo *agindu du eze...*; *esan zidan ezik*; *gazitatu omen du ze...* sino a las conjunciones castizas baskas *-ko* y *-la*, que se sufijan al verbo determinado con sencillez desconocida en otros idiomas» (p. 12).

Euskal idazle zaharrei buruz hara zer dioen jaun hunek: «Ningún libro ni escrito euskaro puede servirnos de modelo perfecto de imitación, pero en algunos de ellos se aprende mucho, y en cualquiera algo. Nada de lo que encontramos escrito en baskuenze puede satisfacernos realmente, y cuando más subamos para rebuscar otras (sic, por obras) antiguas (relativamente tales) mayor será nuestro desengaño. Bien desearía que alguno viniese con algo viejo a demostrarme lo contrario, pero lo que hasta hoy he podido ver me obliga a decir lo que queda dicho. De vez en cuando oigo decir que don Fulano ha conseguido hacerse con tal o cual ejemplar único, o poco menos, impreso o manuscrito, de este o aquel autor basko, que por no sé qué conjunto de circunstancias se ha encontrado (el libro, no el autor) en el convento o biblioteca de un particular: de x. o de z. Vuelvo a decir que es vehemente en mí el deseo de leer algo en baskuenze, si no perfecto, regular por lo menos, y sin esos defectos imperdonables de construcción, que siempre he deplorado en libros relativamente lejanos. Como estoy bien escarmentado por los desengaños que he sufrido en cuanto al particular, he llegado a ser excéptico...» (p. 58).

EUSKARA IDATZIAREN JOSKERA

Hemen aipatzen den don Fulano hori, Urquijo jauna dugu, dudarik gabe. Orduantxe bait zebilen jaun hau Etxeberrri Sarakoaren idazlanak argitaratzeko prestatzen. Zarauzko frantziskotarren komentuan aurkitu zituen. Aurkikunde hau 1905 ean izan zen¹. Argitaratzea, berriz, Parisen 1907 an. Eta bitarte horretan agertu zen Orkaiztegiren liburuska.

Gure artean, Hego Euskalerriko euskaltzaleen artean, Orkaiztegiren ikusmolde hau, neurri handi batean, onartua izan da. Ez zen, noski, Orkaiztegi bakarrik iritzi horretakoa. Azkueren Euskal izkindean (1891) pentsakera hunen lekukotasun eta oiartzun franko ikus daiteke. Euskara bera hizkuntza hain berezia izanik, joskera ere guztiz apartekoa izan behar zuen, beste hizkuntzek ez bezalakoa.

* * *

Urte batzuk geroago, Altube tar Seber euskaltzainak *Erderismos* bere liburua argitaratzen du (Bermeo, 1930). *Euskera* aldizkarian eta bai liburu berezi bezala ere zabaldu zen².

Euskararen joskera jatorra nola den aztertu eta ikertu nahi da liburu hunetan. Azterpen zehatza eta sakona egiten duela ezin da ukatu. Batez ere hitzak esaldi barruan eta esaldiak elkarrekin nola kateatu behar diren iker-tzen du Altubek, eta idazlearentzat legeak ematen ditu.

Bere ikertze hoiek egiteko herrira, aho-euskarara jo du Altubek. Herriko euskara, Gernika inguruan berak entzuten zuena, hartu du iturburu eta eredu bezala. Hau ere ez galbahetu gabe, ordea, herrian entzuten dena ez bait da zuzen.

Hortik aterako ditu euskal joskeraren erregelak idazleentzat. Eta erregela hoiek neurri handi batean onartuak izan dira gure artean.

Idazle zaharren aipamen batzuk ere aurkitzen dira Altuberen liburuan. Baina berak ipinitako legeak sendotzera datozenean, eta sendotzera datozen neurrian bakarrik aipatzen ditu. Erregela hoietatik kanpoan baldin badabil-tza, ez dira imitagarri.

Beste aldetik, Altube jauna izandu zen garai hartan jaundurik zebilen hitzen kontuko Purismoaren kontra gehienik eta bortizkienik borrokatu zena. Berak asmatu zuen berezkuntza jator hura: gauza bat dela, alegia, «erdal hitza» eta beste bat «erderatiko hitza». Erderatiko hitza da jatorriz erde-

1 Ikus *Obras vascongadas del Dr. labortano Joannes d'Etcheberri*, p. VIII.

2 Liburu hunen aitzinetik, hamar urte lehenago, beste lan laburrago bat atera zuen Altubek titulu hunekin: «De Sintaxis euskérica». *Euskal Esnalea* aldizkarian eta bai liburuska berezi bezala ere agertu zen.

ratik datorrena, baina euskarak beretakotua baldin badaduka, orduan erderatikoa izanagatik, euskal hitza da, euskaldundua dagoelako. Beraz, erderatiko hitzak ez dira euskeratik bota behar; euskal hitzak dira, besteak bezalaxe.

Berezkuntza eder hau Altube jaunak hitzen kontuan badaki egiten. Joskeran, berriz, ez.

Hala ere, hizkuntza biziak beti eboluzioan daude. Euskarak mendeetan barna, seguru asko, esaldiak muntatzeko tankeran, molde berriak hartuko zituen behin baino gehiagotan, beste herriekin eta hizkuntzekin izandako har-emanen ondorioz. Hemen ere jatorriz duguna eta geuretakotu duguna ez ote da euskalduntzat jo behar?

Eta gero bada beste berezkuntza bat, Altubek egiten ez duena: hizkera idatzia eta hizkera mintzatuaren arteko berezkuntza. Hizkuntza idatziak baditu bere xede bereziak, bere premiak, bere arauak eta legeak. Ezin da hizkera idatzia hizkera mintzatuaren lege berberekin neurtu.

Egia da, azken batean, hizkuntza berberaren atalak direla biak. Baina hizkuntza horren barnean hizkera idatziak sail berezi bat, barruti berezi bat osatzen du.

Behin baino gehiagotan bisitatu nuen nik Altube jauna, bai Pabeko desterruan eta bai Gernikan ere, bere azken urteetan. Eta gauza hoietaz hitz egiten nuen berarekin. Gogoan dut behin esan zidana, alegia: *Erderismos* berriz argitara behar balu, gauza batzuetan lehen baino zabalagoa izango zela. Esate baterako, anaforiko batzuk onartuko zituela: *zeren, zergatik, nola...*

Beste behin gure Aita Salvatore Mitxelenak sarri esaten zuena bota nion. Alegia: Severo Altube izan da hitzen Purismoa gehienik astindu duena. Eta gero zer da eta, Joskeraren Purismoa berak sartu digu... Eta bata onartzekoa ez baldin bada, bestea zergatik onartu behar da?

Altube jaunak euskal sintaxisari buruz agertu duen bere azken iritzia, *Euskera*-n ikus daiteke, 1956 ko zenbakian, Luis Mitxelenari erantzunez.

Altuberen liburuak hildo nabaria utzi du gure artean, eta hango errege-lak neurri handi batean dogma bezala hartu izan dira. Ipar Euskalerrian, berriz, ez dut uste ezagutzen denik ere. Eta idazteko moldean haren errege-lak ipar-aldekoek ez dituztela gordetzen esan beharrik ez dago.

* * *

Dena dela —eta lehengora goaz—, gure artean haustura bat gertatu da. Idazle zaharrak, txarrak eta kutsatuak bezala joak izan dira. Idazkera-lege berriak zabaldu dira. Euskal jatortasunari leial egoteagatik egin da iraultza hau; baina askotan gauzak zailago eta zurrunago bihurtu dira, eta euskarari bideak zabaldu beharrean, itxi egin zaizkio.

EUSKARA IDATZIAREN JOSKERA

1936 an, gerrak leher egin baino aste batzuk lehenago, liburu bat agertu zuen Ibar-ek (Aita Justo Mokoroa-k): *Genio y Lengua* (Tolosa, 1936).

Euskal literatura berria zein egoskaitza den, nola herriak arbuiatzen duen eta abar, lainoki aitortzen du bertan.

Ibar-ek dioenez, bere bidea galdurik dabil euskal literatura, eta bide galtze hori euskal idazle zaharrak baztertu izanaren ondorioa da.

Hauxen da polita. Herriari segitzeagatik hartu dira bide berriak, eta herriak errazkiago eta gogozkiago irakurtzen zituen euskal idazle zaharrak. Nola uler daiteke hau?

Bi aipamen motx egingo ditugu Aita Mokoroaren lanetatik:

Bata *Genio y Lengua*-tik:

«Podríamos citar por docenas las obras de nuestra tan desdeñada como ignorada literatura cuyo conocimiento y trato asiduo bastaría por sí solo para enfilear decididamente a un crecido número de escritores renacentistas por el camino verdadero del éxito. Por desgracia, se agotaron hace años y hoy apenas se las ve fuera de las estanterías de los bibliófilos, y son como si no existiesen» (p. 255 nota). Ondoren izen-lerrokada dakar: Axular, Haraneder, Arbelbide, Yoannategi, Hiribarren, Duvoisin, *Eskualduna-ko* artikulak, Mendiburu, Mogel, Añibarro, Elissamburu, Iztueta, Asteasuko Agirre, Gregorio Arrue, eta abar.

Beste aipamena *Argia* asterokotik hartzen dut (15-2-1925). Bertan Iparralde-k (Aita Justo Mokoroa-k) herriko euskal amonaxto bati entzundako iritzia ematen digu. Hala dio:

«Motel —esaten zidan gutxi gora bera— alperrik ari aiz; oraingo liburu berri oik izketan bildurrez ari danen batek egiñak ziruditek, batzuk beintzat: motelak dituk, gaitzik (sic) gabeak, txakilak. Beste batzuk, berriz, *geienak*, indarraren indarrez itzak elkarri malluka bezela josita moldatuak. Ire garbizale oien artetik ez didak bakartxo bat aukeratuko *Geroko-Gero*-ren parean jartzeko gayik... *Geroko Gero* bezelako libururik egundaño!» (*Argia*, 1925, otsailaren 15 eko zenbakian).

* * *

Luis Mitxelena etorri zaigu gero. Euskal sintaksisaren hauzi hau behin eta berriz ukitu du berak, nahiz eta berariazko lan luzerik hortaz egin ez duen.

Oihenart-i buruz 1953 an egindako mintzaldian³, Altuberen liburuaren kritika egiten du, eta bide nabar nerekin ere sartzen da, zeren nik Eus-

³ Ikus *Boletín de Amigos del País*, 1953. Artikulu hau ez dago Mitxelenaren Idazlan Hautatuetan jaso.

kaltzaindiko neure sarrera-hitzaldian literatur euskara batuarentzat Altuberen sintaksisa eskatzen bait nuen ⁴.

Egia esan, sarrera-hitzaldi hartan Axular-en eta idazle zaharren alde azaltzen banintzen ere, sintaksis kontuan, ordea, halako salbuespen bat egin nuen, horretan Altuberen legeak hartu beharko zirela esanez.

Mitxelenak, bada, kritika bat egin zion Altuberen liburuari. Hango sintaksisa, agian, euskarak behar lukeena izango da —dio—, baina ez da euskarak gorde duena, eta ez gordetzen duena ere. Gehienez ere, lege hoiek ez dira euskararenak, zenbait dialekturenak baizik. Eta dialektu hoietan ere ez dira zeharo eta osoro betetzen.

Oso-zale edo integrista garelako hobena egozten digu Mitxelenak euskaldunoi.

Eta gero hor dago hauzi hunen beste alderdia, maiz ahantzi duguna: idaztekoan, mintzatzeko behar ez diren baliakizunak, eskuartekoak eta bi-deak behar izaten direla. Beraz, hizkera idatziari, hizkera mintzatuaren legeak hertsiki jartzea, ez da egoki eta ez zilegi.

Mitxelena geroztik beti bat eta iraunkor agertu da bere ikusmolde hunetan. Ikus, esate baterako, 1954 ean Gero-ren edizioari egin zion kritika. Eta Arantzazuko batzarreko txostena, 1968 ⁵.

Adibidez, Arantzazuko txostenean argi eta garbi esaten du badela prosa internazional bat, eta euskal idazle zaharrek ere bide hori hartu zutela. Eta barruti berezi batzuetan izan ezik, prosak ez duela euskal usain apartekorik behar. Ura bezala, usainik, zaporerik eta kolorerik gabekoa izan behar duela.

Egia da bestalde —dena esan behar bait da—, teorian hori esanagatik, praktikan Mitxelenak oso jator gordetzen dituela euskal joskera horren legeak.

* * *

Txillardegi jaunak 1957. urtean idazki bat egin zuen euskal literaturaren egoeraz, literatura horren ajeak eta abar salatuaz. Idazki hori euskaltzaleen artean zabaldu zuen. Beste zenbait gauzaren artean, hara zer dioen: «Antziñako izkribatzalleak alde bat uztea (eta ala utzi dira urte askotan) astakeria galanta izan da. Oraindik ezin dakikegu norañoko kalteak ekarri dizkigun orrek; bañan, segur aski, noizpait neur baditez, izaturik geldo gaitzke».

4 Ikus *Boletín de Amigos del País*, 1952.

5 Ez dut pasarterik hemen sartzen, gehiagi ez luzatzeagatik; baina guztiz ohar-garriak ditu. Ikus *MITXELENAREN IDAZLAN HAUTATUAK*, 115 eta 164-166 orrietan.

EUSKARA IDATZIAREN JOSKERA

Gramatikakeria, aurre iritziz hartutako seta eta irizpideak, eta formalismo hutsaren joera, ageri dira jaun eta jabe, Txillardegiren ustez, urte haietako literaturan.

«Euskal-izkribuak ez dute mamirik —esaten du—. Euskeraz egitea nako eta sobera bide-da, besterik gabe, idatzi aal izateko. Ez, ez, eta millatan ez. Zerbait esan bear ez duena. ixil bedi. Ez beza lumarik ar...»

Baina esanak esan, sintaksisaz denaz bezanbatean, Altuberen erregela hoiek aski ongi finkatuak eta gordeak ikusten ditugu gaurko idazleen artean.

* * *

Hitzaurre luze hau zertara dator, ordea? Ez ote da ura hartzera urrunegi joatea?

Baina hauziaren egoera eta gure arteko giroa gogoratu beharra zegoen. Eta hori egin dugunez gero, sar gaitezen gaian.

Hizkuntza landuek idaztekoan erabili behar den tresna egokitua, presatua izan ohi dute beti. Idatzizko zereginetan erabili behar den hizkeramoldea, esan nahi dut.

Tresna hau zeregin berezi baterako nola den, hizkera hori ere halakoxea izan ohi da: berezia. Hizkera mintzatutik zerbait aldendua.

Hizkera idatziak bere nortasun berezia du, bada. Baditu bere dohain apartekoak, bere lege eta arauak, bere xede berezia duen bezala.

«Il y a quelque hipocrisie dans le dédain des linguistes pour les langues littéraires», idatzi zuen Meillet jaunak ⁶.

Izan ere, joan den mende osoan linguistek hizkera bizia goratu eta idatzia laidoztatu eta azpiratu besterik ez omen dute egin. Gaur, berriz, jokera horretatik sendatu eta zentzatu omen dira ⁷.

Hizkera mintzatua eta hizkera idatzia hizkuntza beraren bi barruti, aurpegi edo sail dira. Hizkera idatziak hizkera biziaren ispilu zehatz eta morroi umila izan behar duela uste izatea, uste okerra da.

Hara zer dioten Vendryès jaunak: «Así, el uso está de acuerdo con la tradición para apoyar la oposición de la lengua escrita y de la lengua hablada. A decir verdad, no se confunden nunca. Es un error creer que un texto escrito pueda ser la representación exacta de la palabra. Contrariamente a la opinión de muchos, no se escribe nunca como se habla; uno escribe (o trata

6 Lafon-ek aipatua. Ikus *Le système du verbe basque...* I, p. 71.

7 Lafon, *ibid.*

de escribir) como los demás escriben. Las personas menos cultas, cuando toman la pluma en la mano, tienen el sentimiento de que usan un lenguaje determinado, que no es el mismo que el hablado, que tiene sus reglas y usos, del mismo modo que tiene su destino e importancia. Este sentimiento está justificado»⁸.

Idazteko behar den tresna hau, idazle, gramatikolari eta eskola-mai-suen artean egin ohi da.

Gure artean, berriz, zer gertatu da?

Euskal idazle zaharrek tresna egokitu eta prestatu ziguten.

Gero, berriz, gramatikalariek haien obra kontuan hartu, segitu eta osatu beharrean, arbuaitu egin dute, gaitzetsi.

Zer arrazoin izan dute horretarako? Idazle zahar haien sintaksisari latinaren kutsua sumatzen zaiola.

Nik hori ez dut bat ere ukatzen. Haatik, latin idatzia ere ez zen latin mintzatua bezalakoa. Eta latin idatzi horren sintaksisak era berean goragoko beste baten kutsua du: grekoarena, etab.

Bada prosa antolatzeke tankera bat, Europako hizkuntza landu guztiek onartu dutena eta guti gora behera denetan berdintsua dena. Gure idazleek ere horretan besteek bezala jokatu zuten.

Egia da hizkera idatziaren barnean ere aurkientza bat baino gehiago dela. «Maila edo mota bat baino gehiago daude euskara idatzian»⁹.

Esate baterako, eta Mitxelenak berak dioenez¹⁰, euskal gaiak darabil-tzagunean, irakurleari Euskal Herriko mendi giroa sumarazi nahi diogunean, herri hizkerari lotuago den hizkera idatzia erabiltzea ongi da. Hala gertatu ohi da ipuin, teatro, elaberri, folklore gai eta horrelakoetan. Baina hesparru berezi horretakoa ez denean, kezka hori zer edukirik ez dago.

Tresna zehatza izateaz, barnean dauzkagun burutapenak azaltzeko aha-lik eta egokiena izateaz, bere betebeharra betetzen du prosak.

Euskaraz idazteko tresna hori gure idazle zaharrek gerturik utzi ziguten, bada. Euskalki literario guztietan berdintsuki egina, gainera.

Eta hori baztertzearekin euskara idatzia bakar bidean ezarri dugu. Lege zurruneak, hertsiegiak ezarri dizkiogu.

Itzulpenak egiteko batez ere, inongo hizkuntzari eskatzen ez zaizkion pleguak, bihurritzeak eta goitik beherako esaldi aldatze ikaragarriak eska-

8 VENDRYÉS, *El lenguaje*, p. 439.

9 MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, p. 114.

10 MITXELENA, *Idazlan Hautatuak*, p. 115.

tzen ditugu. Neurritz kanpoko neke-lanak, ezin pairatuzkoak. Itzuli ez, baina lana eraberritzea eskatzen dutenak.

Behin baino gehiagotan esan dut, baina berriz esatera noa. Eliz gertaera handi bat izan dugu, duela urte gutti: Kontzilioa. Kontzilio horren gutunak hizkuntza landu denetan itzuli eta zabaldu dira. Euskarari ez. Izan ere, euskara idatziari ezarri zaizkion sintaksis-legeekin izugarri zaila bait da hoiek itzultzea. Haatik gure idazle zaharrek aisa burutuko zuten horrelako lan bat.

Gregorio Arrue, Zarauzko eskola-maisuak (1811-1890) hainbeste liburu itzuli zituen euskarara, eta gure herriak gogoz irakurtzen zituen liburuko. Izango ote zuen lan hori egiteko aukera, baldin euskara oraingo legeekin tratatua aurkitu balu? Ez dut uste.

Orduan zertan gabilta? Hizkuntza beso eta zangoz katigaturik uzten?

Zokoratu dugun tradizio zaharra ez ote dugu berriro hartu behar?

Bada esaldiak muntatzeko manera bat, subordinadak eta printzipala elkarrekin lotzeko arte jakin bat.

Periodo klase hoiek indoeuropeanoak direla, eta gu ez garela indoeuropeanoak esango digute. Noski. Baina jatorriz ez izanarren, haiek zabalduak erak geuretakotu ezinik ez dugu. Areago bizi beharrak hori eskatzen digunean.

Indoeuropeanoek ere idaztekoan zabaldu dituzte era hoiek, ez bestela. Nik ezagutu nuen fraide bat, mintzatzekoan ere (gāztelaniaz mintzatzean) beti liburuko hizkera-tankeran mintzatzen zena, subordinada ongi kateatuak eta abar enplegatuz. Bitxi eta arraro egiten zitzaigun, mintzatzean ez bait da hala egiten.

Sarako Etxeberriren *Eskuararen Etorkia* euskaraz eta latinez eginik dago. Urquijo-k euskarazko testua bakarrik eman zigun. Baina esku izkribuak aldamenean dakar latin itzulpena. Periodoak antzera samar antolatua daude bi hizkuntzetan, eta hala errez itzultzen dira batetik bestera.

Latinezko itzulpena argitara gabeko esku izkributik hartuz, Sarako Etxeberriren zati batzuk emango ditut, bi testuok —euskara eta latina— elkarrean parean jartzen ditudala.

ESKUARA GARBIA DA

Axular gure erretor famatuak ederki ukitzen du pontu hau noiz eta ere baitio, *Aitzitik badirudi, ezen bertze hitzkuntza, eta linguaia* (sic) *guztiak bata bertzearekin nahasiak direla; baina eskuara* (sic) *bere lehenbiziko hastean, eta garbitasunean dagoela* (p. 20), zeren linguaia hala zahar, nola berri, eta arrotz, ja hain komun, eta ardurako egin direnen artean den nahastakadura baithoa egun guztiaz aitzinatuz, eta hedatuz, hala nola goaia handiak lurra arrobatur bere iragaitzako lekhuia baitarama zabalduz, eta hala nahastakadura hau dela kausa hainitz jendaki suertek osoki utzi tuzte galtzera bere hitzkuntzak; ezen konsidera badezagu munduan izan diren hitzkuntzarik famatuenak, hebreoa, grekoa, eta latina, noizbait ardurako, eta komun zebiltzanak, edirenen dugu ja estudiantuz baizik nihork ezituela ikhasten, eta ja erregelen manera, eta bat bederaren trabailura eroriak daudela; bainan eskuara egundainotik, eta bere lehenbiziko hatsapenetik ardurako, eta komum izan dena, gure Eskual Herri hunetan orai ere hala konserbatzen, eta mantenatzen da; baina hebreoz lehenbizirik mintza nadin Babiloniako gathibutasunean hirur hogoi eta hamar urthez hebreoei ahantzizaien bere hitzkuntza propiala, eta ikhasi zuten kaldeoa bere etsai garaitiarrena, eta bere herrirat itzuli zirenean ere hura zerabilaten bere hitzkuntzatat, eta Jainkoaren semea gizon egin zenekotzat, hekien hitz-

CANTABRISMUS NITIDUS EST

Famosus noster Parochus Axular nitide hoc attigit, quandoquidem dixit: Immo enim alia idiomata, cunctique sermones videntur esse inter se commixta; attamen Cantabrisimus in suo primo principio, et nitore existere, pag. 20. Quia commixtio, quae inter idiomata sive antiqua, sive recentia, atque peregrina, quaeque tam vulgaria jam facta sunt, quotidie promovetur et diffunditur instar rapidi torrentis, qui terram effodendo sui transitionis viam dilatat, et propagat; et propter hanc commixtionem plures sunt nationes, quae omnino suorum idiomatum memoriam oblivioni commendarunt: si enim diligenter perpendamus idiomata, quae in orbe fuere nominatissima nempe Hebraicum, Graecum, et Latinum, quae olim vulgariter vagabantur, comperit nobis erit, nisi per studium, neminem ea discere, necnon sub regularum dictionem, et uniuscujusque laborem jam esse submissa; sed Cantabrisimus, qui semper ex suoque initio vulgaris fuit, nunc quoque in hac nostra Cantabria sic sustentatur. Sed ut in primis de Hebraico loquar sermone, Hebraei in captivitate Babylonis septuaginta annis obliti fuerunt suum idioma, et inimicorum suorum Caldaicum didicerunt, cumque reversi fuissent in patriam suam, eo pro suo sermone utebantur, per idque temporis, quo filius Dei homo factus fuit illorum idioma Hebraicum cum Syriaco, et Caldaeo permixtum erat, ita ut ad sacros intelligendos codices

kuntza hebreoa nahastekatua zen siriakarekin, eta kaldeoarekin, halako moldez, non liburu sakratuak aditzekotzat obligatuak baitziren estudiatuz hebreoaren ikhastera, guk orai latina bezala.

.....

& 2. Hitzkuntzak denborarekin ganbiatzen, eta zahartzen dira, halako gisaz, non ehun, edo berrehun urtherik barrenean hainitz hitz ezin adi baititezke, hitzkuntza arrotza baltiz baino gehiago; eta arbolak bere hosto zaharrak egotzirik, berriz berriroki hosto berriez bestitzen diren bezala, eta adin gaztetik zahartasuna heldu den eredura, hitzkuntzetan ere ganbiadura, edo mutantza, gisa berean ethortzen dela, non handikan bere garbitasuna galdurik, bata bertzearekin nahasiak gelditzen baitira; eta hala grekoak ere manera hunetan galdu zuen bere garbitasuna: ezen Quintilianok, eta Dionisiok diote, *Et confessis quoque Graecis utimur verbis, ubi nostra desunt, sicut illi a nobis nonnumquam mutantur*. Latinak eta grekoak ordainzka edo aldizka batak bertzeaganik hitzak hartzen tuztela.

(ETXEBERRI, *Lan Hautatuak*, p. 33-35).

& 31. Beraz badirudi, gure eskuararen zuhurtziaz ezin frogarik eman ditekela? zeren ezpaita edireten autor, eta istorio guztien artean egiteko huni dagokala, kopia bat bedere athera duenik, baina nola kopia falta denean orijinala bilhatzen ohi baita, eta ezpaita kopiarik hura bai-

coacti essent ut ope studii Hebraicum discerent, quemadmodum nos latinum.

.....

& 2. Idiomata annorum intercessu mutantur, ac senescunt, ita ut post centum, aut ducentos annos plura vocabula, instar peregrinorum, vix intelligi possint, et more arborum quae abjectis frondibus pristinis, denudè ornantur recentibus foliis, et quemadmodum ex tenera aetate senectus succedit, similis quoque mutatio in idiomatibus contingit, et hinc labe concepta inter se commixta permanent; sic etiam Graecum coinquinatum fuit, nam Quintilianus, et Dionisius aiunt: Et confessis quoque Graecis utimur verbis, ubi nostra desunt, sicut illi a nobis nonnumquam mutantur.

& 31. De nostri igitur Cantabrisi sapientia nulla videtur posse dari comprobatio? quia inter omnes Autores, atque historias nullus adest, qui saltem unum exemplar ad hoc munus attinens adiderit. Verumtamen defficiente appographo archetypus quaeri solet, quo nihil est scrip-

no seguragorik, eta fidelagorik; hartatik bada nik ere nahi dut bilhatu egiteko huni dagokan egiazko orijinala, zeina baita eskuara bera, edo hunen mintzoa, eta hunetarik bere-tik esperantza dut, atherako dudala behar den froga, eta argitasun osoa, zeren ezbaita mintzoa baino lekhuko seguragorik, ez egiazkoagorik bat bederaren ezagutzeko, ez eta ere ezta froga komunagorik (eta) naharoago edireten denik, hala lege naturalean, nola iskribatuan, eta garaziazkoan ere, nola baita mintzotikakoa; ezen gure Jainkoak noiz eta ere Adan lehenbiziko gizona eta gure aita ez yeusetarik egin edo kreatu zuen ondoan, ekharri ziotzan aitzinera animalia, eta hegaztina guziak, hetarik bakhotoxari bere naturalezaren eredura izenaren emaiteko: *Adduxit ea ad Adam, ut videret quid vocaret ea: omne enim quod vocavit Adam animae viventis, ipsum est nomen eius* (Gen 2). Bide hunetaz Adami, eta haren ondoko ume guztiei ezagutzera emaiteko, nolako zuhurtzia eta jakintasun miragarriarekin mundurat eman zuen, ezen ezta zuhurtziaren señaile seguragorik, nola baita gauzen naturalezen ezagutza, zeina filosofoek deitzen baitute, *Cognitio a priori*; ezagutza suerte hau izatu zuen aita Adamek, Salomonek, apostoluek, bainan bertzek guttik.

& 32. Halaber lege iskiribuzkoan ere kausitzen da: (Gen 27) nola Isak patriarkha handi hura itsutu zenean Jakob bere semea finezioski Esau bere anaiaren arropen edo soinekoez beztiturik joan zi-

tum veritati convenientius, atque fidelius. Ob id igitur ego quoque intendendo vestigare hujus negotii verum archetypum, quod est ipse Cantabrimus, sive hujus loquela ex eademque spero argumentum plenum, vel testimonium verum a me esse deducendum, quoniam locutione non datur certior, ac fidelior testis, ut quis notus fiat, neque ullum reperitur vulgaris, ac frequentius testimonium tam in lege naturali, quam scripta, et gratiae deducto ex loquela: quando enim altissimus Adamum primum hominem parentem nostrum ex nihilo eduxit, ei ante oculos posuit omnia animalia, et volatilia, ut unicuique illorum im poneret nomen juxta eorum naturam. «Adduxit ea ad Adam ut videret, quid vocaret ea: omne enim quod vocavit Adam animae viventis, ipsum est nomen ejus». Gen. 2.

Ut hac ratione Adamo, et cunctis ejus successoribus significaret, quali sapientia, et mira eruditione eum condiderat; nullum enim est sapientiae certius inditium rei cognitae, quam Philosophi vocant, *Cognitio a priori*. Hujusmodi lumine gavisus sunt Pater Adamus, Salomon, Apostoli, sed rarò alii.

& 32. Idem compertum manet in lege scripta, quando enim Isaac oculorum lumine orbatus fuit, Jacob illius natus singulari industria vestibus, seu indumentis Esau amictus abiit ad Isaac parentem senio confec-

tzaion Isak aita zaharrari benedizinoaren galdegitera; bainan Isak aita itsuak mintzarazi zuenean Jakob bere semea, zer erran zuen? soinekoak Esauenak dira: baina mintzoa Jakobena.

(ETXEBERRI, *Lan Hautatuak*, p. 23-25).

& 30. Baldin dastatu balu bada Marianak Eskual Herria ikhusiko zuen aski emea eta ezta dela izpiritu habilen, eta adimendu haltoen emaiteko: ezen ezta beroegia, hala nola baita eguberdiko partea, ez eta ere hain hotza, nola nortea: hargatik erran zuen Galenok ere, nortearen azpian egoitza dutenak adimenduz eskas direla: baina northearen, eta eguerdiaren artean direnak, hagitz direla prudentak, eta izpiritutsuak: zorthe hunetako da Eskual Herria, zeren nortearen, eta eguerdiaren artean baitago jarria, eta halatan erran behar da izpiritu, eta adimendu agudoen emaiteko dela lekhu ona, eta behar bezalakoa, eta baldinetariak baldin baliz oraino nihor hain burugorrik egia hunetaz dudatzen luenik, hainaren sinhetsgogortasunaren bentzutzeko, ekharriko diotzat lekhu-ko herri hautako arbola ferde fruitutsu eta hagitz ederrak, ithurri gozo garbiak, itsasoko, eta ur eztieta arrain ozteak, hegastina, eta ihizi arinak, eta abre mutu tropelak; zeinek aski klarki, nik erran dudana egia dela erakusten baitute.

& 31. Eskual Herriaz mintzatu eta ondoan, zer erranen dut bada

tum postulatam benedictionem, at Isaac pater lumine orbis, quando loquelam Jacob sui nati auribus hausit quid dixit? Vestimenta ad Esau pertinent, sed loquela ad Jacob.

& 30. Si Cantabriam degustavisset Mariana, pro comperto habuisset, satis benignam, et mitem esse, ad sublimes intellectus, ingeniaque acuta producenda quia non est immodice calida, ut regio meridiana, neque plus aequo frigida, ut Septentrio, ob id dixit Galenus quoque, sub Septentrione commorantes ingenii hebetes esse; eos vero qui degunt vitam inter Septentrionem, et meridiem, esse prudentissimos, et ingeniosos; Hujus sortis est Cantabria, quia inter Septentrionem, et meridiem sita est: proptereaque dicendum, ad progenerandum solertes mentes, et ingenia acuta, esse solum aptum, atque idoneum. Etsi forsitan aliquis esset sui iudicii nimium tenax hanc veritatem in dubium revocans: ad ejus incredulitatem exsuperandam, pro testimonio adducam arbores hujus patriae virides fructiferas, pulcherrimasque, iucundos ab omni labe fontes mundos, maris, et aquarum fluviatilium copiosa piscium omnium genera, aves, et feras veloces, pecudumque agmina, quae satis aperte, quae dixi, vera esse indicant.

& 31. Postquam de Cantabria sermonem contulerim, quid igitur

orai, eskualdunez? baizik bere sort-heriaren naturaleza, eta trenpu berekoak direla, eta hargatik direla hain kolore, eta iduri ederretakoak, habilak eta gorphutz thailu onetakoak: ezen eztira hain iharrak, eta meheak, nola eguerdi aldekoak, ez eta ere hain haragitsuak, nola northekoak; hargatik ordea dira zientzietakotzat ere hain gai onak, ezen badio Hipokratesek: *Conducit etiam ad sapientiam, ut minime carnosii sint, nam ad carnis bonam habitudinem ardoris inflammationem fieri necesse est.* Ez haragitsu izaita on dela jakintsun izaiteko. Eta oraino bertze alde gauza huni berari dagokala dio Hipokrates autor berak: *Si ignis, et aqua in corpore temperamentum acceperint, fit anima sapientissima, et memoria valentissime praedita, si vero ignis superetur ab aqua fit tarda.* Erran nahi du, adimendu eder baten izaiteko, eztela halakorik, nola gorphuts tenperatua, edo trenpu onetakoa, ezen hotza baldin garai bada, adimendua pisu, dorphe, eta gogor izanen baita. Arrozoimendu hunen eredura ezin erran diteke beraz eskualduna burugogor eta har-aira gaitzetakoa dela; egia hau exenpluz hala erakutsi izatu dute Eskual Herri-rik herri arrotzetarat ilkhi diren bakhoxetarik hainitzek, hala nola D. Navarro Baztan Aspilkoeta semeak; aita Elizalde Jesusen Konpainiako jesuistak eta halaber Etxelarko semeak: aita Jeronimo Etxenike Urdazubiko konbentukoak, eta Erratzuko semea.

(ETXEBERRI, *Lan Hautatuak*, p. 79-80).

mihi nunc dicendum de Cantabris? nisi eos natalis soli natura, et temperie frui? proptereaque eos tam splendidis colore, ac specie, corporis agilitate, atque habitu gaudere: quia non sunt tanta affecti macie, quanta Meridiani; neque tanta carnositate onerati, quanta Septentrionis incolae; sed perinde sunt etiam ad litterarum studia apti, nam inquit Hipocrates: *Conducit etiam ad sapientiam, ut minime carnosii sint, nam ad carnis bonam habitudinem ardoris inflammationem fieri necesse est.* Circa hoc ipsum ait idem Auctor Hip. *Si ignis et aqua in corpore temperamentum acceperint, fit anima sapientissima, et memoria valentissime praedita; si vero ignis superetur ab aqua fit tarda.*

Secundum hae vero argumenta inferri debet Cantabrum esse capacem, ac studendo idoneum, minime vero stolidum, ingeniique hebetem, immo optima indole, ingenioque naturae praeclaro. Haec veritas sic comprobata est a plurimis qui ex Cantabria in extraneas discesserunt patrias, ut a Doctore Martino de Navarra oriundo è oppido Aspilcoeta vallis Baztanaensis, a Patre Eliçalde Societatis Iesu, nato Etchalari, a R. P. Hieronymo Etchenique ordinis praemonstrensium, conventus urdaxensis.

EUSKARA IDATZIAREN JOSKERA

Zer da Gramatika?

Da ongi iskiribatzeke eta zuzentki mintzatzeko arterioa

Zenbat dira Gramatikaren parteak?

Laur: letra, silaba, hitza eta per-pausa.

Zenbat dira letrak?

Hogoi eta hirur, a, b, c, d, e, f, g, h, i, k, l, m, n, o, p, q, r, s, t, u, x, y, z.

Letrak nola errepertitzen dira?

Vokaletan eta konsonántetan.

Zenbat dira vokalak?

Bortz, a, e, i, o, u, eta bat Grekoa, y.

Zenbat dira konsonantak?

Hamasei, b, c, d, f, g, k, l, m, n, p, q, r, s, t, x, z: h ezta konsonanta, baizik hasperapenezko marka edo seinelea (sic).

Vokaletarik zenbat diptongo egiten dira?

Bortz, ae, oe, au, ei, eu.

Nondik egiten da silaba?

Letretarik hala-nola: pa.

Nondik egiten da hitza?

Silabetarik hala-nola: pater.

Nondik egiten da per-pausa?

Hitzetarik hala-nola: pater ait.

Per-pausaren parteak zenbat dira?

Zortzi: izena, izenaren ordaina, Verbo-a, partizipio, adverbioa, praepo-sizino-a, juntagaillua eta interjec-tioea.

Zenbat parte dira deklinatzen direnak?

Laur: izena, izenaren ordaina, ver-bo-a eta partizipioa.

Quid est Grammatica?

Est ars recte scribendi, recteque lo-quendi.

Quot sunt partes Grammaticae?

Quatuor, littera, syllaba, dictio, et oratio.

Quot sunt litterae?

Viginti tres, a, b, c, d, e, f, g, h, i, k, l, m, n, o, p, q, r, s, t, u, x, y, z.

Litterae quomodo dividuntur?

In vocales et consonantes.

Quot sunt vocales?

Quinque a, e, i, o, u, et una Grae-ca, y.

Quot sunt consonantes?

Sexdecim, b, c, d, f, g, k, l, m, n, p, q, r, s, t, x z: h autem non est consonans sed aspirationis nota.

Ex vocalibus quot fiunt diphtongi?

Quinque, ae, oe, au, ei, eu.

Unde fit syllaba?

Ex litteris, ut pa.

Unde fit dictio?

E syllabis, ut pater.

Unde fit oratio?

Ex dictionibus, ut pater meus.

Orationis partes quot sunt?

Octo; nomen, Pronomen, verbum, Participium, adverbium, Praepo-sitio, conjunctio, et interjectio.

Quot sunt partes quae declinantur?

Quatuor, Nomen, Pronomen, Ver-bum, et Participium.

Eta zenbat dira deklinatzen ez-tiren parteak?

Bertze gainerako laurak, adverbioa, prae-positio, conjunctio, et interjectio.

IZENAZ

Zer da izena?

Izena da perpausaren parte bat zeinak, kasuetarik deklinaturik, aditzera emaiten baitaroku zenbait gauza

Zenbat gisetarakoa da izena?

Bi gisetarakoa, substantivoa eta adjektivoa

Sustantivoa da artikulo batetarik edo bietarik deklinatzen dena hala-nola, hic Deus; hic eta haec parens. Ordea artikulua dira hirur: hic, haec, hoc.

Adjektivoa da hirur artikulorekin edo hirur akhabantza diferenterekin deklinatzen dena, hala-nola: hic, et haec eta hoc felix; hic et haec fortis, et hoc forte: hirur akhabantzetarik hala-nola, bonus, bona, bonum; acer, acris, acre.

Zenbat gisetara da izen sustantivoa?

Bi gisetara: propiala, gauza bakhar bati ematen zaioena, hala-nola Jesus, Roma, Tyberis.

Apelativoa da hainitz gauzari eman ahal dakioketena, hala-nola homo, urbs, flumen.

Izenari zenbat gauza juntatzen zaizko?

Zazpi: generoa, kontua, kasua, deklinazioa, figura, mueta eta konparazioa.

Et quot sunt partes, quae non declinantur?

Quatuor reliquae, adverbium, Prae-positio, conjunctio, et interjectio.

DE NOMINE

Quid est nomen?

Nomen est orationis pars, quae declinata per casus significat nobis rem aliquam.

Quotuplex est nomen?

Duplex Substantivum, et adjectivum.

Substantivum est, quod per unum, aut duos articulos declinatur, ut hic Deus, hic et haec parens. Articuli vero sunt tres hic, haec, hoc.

Adjectivum est, quod per tres articulos, vel per tres diversas voces declinatur, ut hic, et haec et hoc felix: hic et haec fortis, et hoc forte; per tres voces ut bonus, bona, bonum.

Substantivum nomen quotuplex est?

Duplex, proprium, quod uni soli rei datur, ut Jesus, Roma, Tyberis.

Appellativum, quod pluribus dari potest, ut homo, urbs, flumen.

Nomini quot accidunt?

Septem, genus, numerus, casus, declinatio, figura, species, et comparatio.

Izenen generoak zenbat dira?

Zazpi; Maskulinoa, ut hic Jesus; feminoia, ut haec Maria; neutroa, hala-nola hoc templum.

Bietako komun dena: hic et haec sacerdos. Eta hiruretakoa: hic et haec et hoc prudens. Dudazkoa: hic vel haec dies. Nahastekakoa: hic passer, haec Aquila.

Izenen numeroak edo kontuak zenbat dira?

Bia: singulara edo batekoa, hala-nola, Rex, Dominus;

Plurala, edo hainitzetakoa, hala-nola, Reges, Domini.

Izenen kasuak zenbat dira?

Sei: Nominatiboa, Genitiboa, Dativoa, Akusatiboa, Vocatiboa eta Ablatiboa.

Izenen deklinazioak zenbat dira?

Bortz: lehenbizikoa, bigarrena, hirugarrena, laugarrena eta bostgarrena.

Zer da lehenbiziko deklinazioa?

Lehenbiziko deklinazioa da, zeinaren genitiboak baitu bere akhabantza ae edo es, eta Dativoaan ae, hala-nola musa, Genitibo musae, Dativo musae, Penelope, Penelopes, Penelope.

Bigarrena zeinaren genitiboak baitu akhabantza i, eta Dativoa o, hala-nola Dominus, genitibo Domini, Dativo Domino.

Hirugarrena zeinaren genitiboak akhabantzen (sic) baita is, eta Dativoa i, hala-nola, Pater, Genitivo Patris; Dativo Patri

(Obras vascongadas..., p. 278-279)

Nominum genera quot sunt?

Septem, Masculinum, ut hic Jesus; Faemeninum, ut haec Maria: Neutrum, ut hoc templum: commune duum, ut hic et haec parens; commune trium, ut hic et haec et hoc prudens: Dubium, ut hic, vel (haec) dies: Epicoenum, ut hic passer, haec Aquila.

Nominum numeri quot sunt?

Duo, singularis, ut Rex, Dominus; Pluralis, ut Reges, Domini.

Nominum casus quot sunt?

Sex, Nominativus, Genitivus, Dativus, Accusativus, Vocativus, et Ablativus.

Declinationes nominum quot sunt?

Quinque, p r i m a, secunda, tertia, quarta, & quinta.

Prima declinatio quid est?

Prima declinatio est, cujus Genitivus desinit in ae, vel in es, et dativus in ae, ut musa, Genitivo musae, Dativo musae; Penelope, Penelopes, Penelope.

Secunda, cujus Genitivus in i, & Dativus in o ut Dominus, Genitivo Domini, Dativo Domino.

Tertia, cujus Genitivus desinit in is, & Dativus in i, ut Pater, Genitivo Patris, Dativo Patri.

FR. LUIS VILLASANTE, OFM

Esaldiak muntatzeko maneran bi testuok anaia bixkiak direla bistan da. Baina Europako hizkuntza landu guztiak ez ote dira hunetan berdin jokatu? Eta bide hori euskarari debekatuaz, mesede baino kalte gehiago ez ote diogu egiten?

Altube, 1922, an Gernikan euskal hitzei buruz egindako hitzaldian, kultura eta jakintza saileko hitz internazionalak hartzearen alde azaldu zen. Jakintza saileko hiztegi kontuan euskara bakarti eta bere bidetik ibiltzea kaltegarritzat jotzen zuen berak.

Haren hitzak aipatuko ditut bukatzeko: Bakar bide hori hartzea inoizko kaltegiñena oraintze litzaiguke ¹¹.

Hitz hoiek hiztegi kontuan balio baldin badute, ez ote dute berdin edo areago hizkera idatziaren joskera sailerako balio? Galdez diot.

Fr. Luis VILLASANTE, OFM

11 «Euskal Itz Barriak», 91 or.